

Geratzeko heldu zen, arterien mapan hedatzen
Hemen dut berriz, zainetan abiada hartzen dit
ariman kabi, gorputzatalak erasan ahala zuzpertzten dizkit. Biho
tzbegietan kilimak
ameba erraietatik, kitzikaturik ezpain, aldaka, hezur eta azal,
zakil eta eri
Harra erraietan, elkar elikatzen, nire soinuaren bare
Hemen dut berriz, zainetan, sukarra eragiten, sisteman eten
arnas hartzea zeregin zaila inondik ere.
Kutsadura odolatan: ez da sendagairik, zenbat eta gehiago eman,
gehiago eskatzen dit
Harrak pixkanaka hiltzen nau, ez dauka sekreturik, baina sentip
enak hor dirau:
gaitz hau da bizirik naizela sinistarazten nauen gezur hilkor,
eder, alu bakarra
beraz zu, engaina ezazu beste behin